



Kroazia

Ihesi

Dalmaziar harribitxia Dubrovnik

TESTUA: MARC MORTE
ARGAZKIAK:
ELENA SENAO / MARC MORTE

Dubrovnik jaurreria perla liluragarri gisan ageri zaigu Adriatikoko ur gardenetan. Bere karrika hertsu eta zutek, jauregi eleganteek, harresi gotorrak Adriatikoko hiri boteretsuenetarikoa izanik Veneziarekin lehiatu zenekoa ekartzen digute gogora. Azken aldian indartu den Dubrovniketikiko interes turistikoari esker, eta sortu berri diren hegaldiak baliatuz, gaur egun inoiz baino errazagoa dugu antzinako Ragusara ihesalditxo egitea.



Dubrovniken jatorrizko izena Ragusa izan zen. Esklaboak finkatu ziren kokalekuari esaten zitzaion Dubrovnik, eta Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean eman zioten hiriari izen hori ofizialki.

Dubrovnikera lehen aldiz iristen delarik, izan itsasoz, lurrez edo airez, mendi malkartsu eta harritsuen oinetan kokaturiko hiri distiratsuak txunditzen du bidaiaria; harresi gotorrak babestua, soil-soilik teilatu laranjak eta kanpandorre luzangak ageriko zaizkio. Zaila da zinez ikusmira honek ez xarmatzea eta Dubrovniken lilurak ez harrapatzea.

Hiri zaharrerako sarbide ohikoenak Pile atea da, harresiko beste ateen gisan hiria urtetan babestu duen San Blas patroiaaren estatua buru duelarik. Atea zeharkatu bezain laster Dubrovnikeko arteria nagusia ageri zaigu: Stradun edo Placa, Dubrovnikeko monumentu harrigarrienak, kafe goxoa dastatzeko terrazak. Eguzki izpi leunek ferekaturik karriketan goiti eta beheiti lasai ibil gaitezke, bertako herritarrek egiten duten lez.

Antzinakoa du Dubrovniken historia, VII. mendean gaur egungo Cavtat-etik etorritako errefuxiatuak uhartean finkatu zirenekoa, eta

Ragusa izenez ezagutua izan zen hiria sortu zutenekoa. Geroago, esklaboak ere finkatu ziren bertan, Dubrovnik izendatu zuten kokalekuan hain zuzen ere. XII. mendean, Ragusak irla izateari utzi zion banatzen zuen ur kanala bete zutenean, gaur egun ezagutzen dugun hiria eraikiz. Lehendabiziko mendeetan bizantziar inperioaren menpe egon zen, baina gurutzaden ondotik Veneziaren esku gelditu zen XIV. mende erditsura arte. Errepublikak independente bilakatu zen arte hain justu.

Veneziaren sistema politiko berdintsua ukanik, Adriatikoko komertzioaren monopolioan luzaz lehiatu ziren biak. Haatik, XVII. mendeaz geroztik gainbehera etorriko da Ragusa, eta 1815ean Austro-Hungariar inperioak bereganatu zuen, Bigarren Mundu Gerrara arte. Orduan izendatu zuten hiria ofizialki Dubrovnik. Inperioen amaierarekin eta nazionalismoak indartzearekin bat, sentimendu kroaziarrak

gora egin zuen, eta gerora Jugoslavia gisara ezagutu dugun serbiar, kroaziar eta esloveniaren erreinuan sartu zen.

Dubrovniken magian murgiltzeko erarik onena norabide finkorik gabe bere kale txikietan barna ibiltzea da, kantoietan bakoitzean harriaren grabaturiko iraganeko altxorren bat, antzinako etxalekuren bat, edo kapera txikiren bat aurkituz; badira hala ere aldera utzi behar ez diren atrakzio zenbait. Lehen-lehena, frantziskotarren monasterioa, Pile atakatik sartu eta berehala atzemango duguna, Onofrioren iturriaren bisean bis.

la 700 urte dituen farmazia

Klaustro xarmangarriak berez bisita merezi duen arren, farmazia bati zor dio fama. Izan ere, 1317an inauguratu zuten farmazia Europako hirugarren zaharrena da; gaur egun lanean jarraitzen du, bere aurretik zabaldu zituzten biek ez bezala. Bertan oraino ohiko sendagaiak



Kale artean galtzea da Dubrovnik ezagutzeko modurik onena.

eros badaitezke ere, sendagaiak prestatzeko erabiltzen zituzten antzinako tresnak daude ikusgai. Monasterioaren ondoan San Spasen eliza dago, dalmaziar estilokoa, barnean Urbinoko Pietro Antoniok egindako Igokundearen margo bikaina duena.

Gerra hotsak gogoan

Stradun-en beste muturrean hain justu, Sponza palazioko aurreko

aldea ageri zaigu, eta veneziar estiloko leiho handi eta ederrek mendetan zehar Venezia guztiz ahaltsuak ukan zuen eragina nabarmentzen dute. Gaur egunean Artxibo Historikoak daude bertan, eta barneko patio ezin ederragoa bisita daitekeen arren, palazioko gela txiki batek du historia hurbilena gogora ekartzen. Gaur egungo Dubrovnik ezti eta baketsua duela urte gutxi gerlan murgildua zela irudikatzea

zaila izanik ere, anitz oroitzen gara 1990eko hamarkada hastapenean Balkanetako gerlan hirira jaurtikitzen zituzten bonbez. Oraindik ez da gerla gogorarazten digun museo-rik estreinatu; gela txiki honek, haatik, bonbek hil zituzten herritarren argazki franko ditu hormetan zintzilikaturik, eta baita Europa osoa ikaratu zuten bonbardaketek eragindako suntsiketaren irudi-proiektzioa ere.



Spiza jauregia eta Erloju Dorrea. Lehenbizikoaren estiloak agerian uzten du hiria Veneziaren esku egon zela.

Stradun eta inguruetako kaleetako jendaldez unatzean, momentu egokiena da hiriko hegoaldeko kaleak ezagutzeko eta harresiraino iritsi arte bertan galtzeko. Hemen, ahotsen murmurioa urrun gelditu

zaigu, haurrak bat-bateko atea baliatuz futboleant ari dira mendetako historiaren itzalean. Artetan karrika hertsiek eguzkiari sartzea galarazten diotela dirudi, eta haien zirimolan galduko garela sinetsia

dugunean, bat-batean harresia ageriko zaigu eta baita atsedena hartzeko ezin hobeak diren hainbat plaza txiki ere. Eremu honetan da kuku-tzen seguruenik Dubrovnikoko ostaturik miragarriena dena: harresiko ataka txiki bat iraganez pendiza arrokatsu gisako batera iritsiko gara eta parez pare Itsaso Adriatikoko urak beren edertasun gorenean izango ditugu. Harresiak alde batean eta itsasoa bestean, bertan jarririk freskagarri edo garagardo bat dastatzea, esperientzia ahanztzezina da zinez.

Baina harresiaren oinetan jarrita egon ondoan Dubrovnik bisita burutzeko modurik ederrena, harresira igo eta handik hiriari beha egotea da, lasai eta geldiro, eguzkiaren azken izpiek harri zuria nola laztantzen duten so eginez, eguzkia emeki-emeki Adriatikokoan murgildu eta Dubrovnik iluntasunak inguratzen duen arte. ■

Kantxatik

Luis Mari Telleria
Lau urteko
jardunari
atzera-begirakoa

KALEAN DA LAUGARREN ZENBAKIA!

Zenbaki honetan... Erreportajea: Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. Elkarrizketa: Luis Mari Telleria, GEPEko presidentea. Editoriala, informazioa. Pilota eskola: Pilota Aniztasuna KEE. Zure intzia. Aholkularitza teknikoa. Pilota profesionala: Aspe eta Jai-Alive. Laburrean: Txapelketa Herrikoa.

Egin zaitez harpidedun!
Urtean 4 zenbaki, 10 euroren truke

Harpidedun egiteko bideak:

1. Gipuzkoako Euskar Pilota Federazioa jo (Anoeta Pasealekua, 5. Kirol Etxea, 20014-Donostia; 943 47 14 63)
2. kantxatik@gmail.com helbidera mezu bat bidali (izena, telefono zenbakia, helbidea... garbi adierazi)

Kantxatik: Gipuzkoako Euskar Pilota Federazioaren aldizkaria. Pilotezale gurtien aldizkaria. Euskar pilotari buruzko zure aldizkaria, euskararen futsoan.

Gipuzkoako Foru Aldundia